

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Carmelo Alberdi Arizmendi*

*Azkoitia,  
Gipuzkoa  
(1926-2021)*

Aurkibidea



## Biografia



1926an jaio zen Azkoitian. Gurasoak kaletarrak zituen. Eskolan, besteak beste, mojekin Mixerikordian, Floreagako eskolan, Azkoitiko udaletxean, eta mesedetakoekin ibili zen. 16 urterekin eskola utzi eta Azkoitiko Manzidor lantegian hasi zen lanean; "mandatari" eta "doitzaile" lanetan aritu zen bertan. 9 urte zituenetik akolito lanetan ibili izan da Urrategiko elizan eta oraindik ere lan horretan jarraitzen du. Umetatik izan du marrazteko eta eskulanak egiteko zaletasuna eta hainbat margolan eta irudi egin izan ditu. Urrategiko elizan ere berak egin ditu aldareko hainbat pieza.

## Zintak

### AZK-025

- **Proiektua:** Azkoitiko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Otegi, Aitziber
- **Data:** 2008-04-17
- **Iraupena:** 55 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

## Pasarteak

### 1. Eskolan lehenbizi Mixerikordian eta ondoren Floreagan

- **Erref:** AZK-025/001
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

#### Laburpena:

<p>Azkoitiko Altzibar auzoan jaio zen 1926an. Gurasoak ere kaletarrak zituen. Mixerikordian ikasi zuen bi urtez, eta, jaunartzea egin ondoren, Floreagako eskolara joan zen, La Salleko fraideen eskolara. Gerra denboran, eskola ospitale bihurtu eta udaletxera pasa zituzten. Apaizek ematen zieten eskola, eta hiletaren bat zegonean eskolatik jai izaten zuten.</p>

### Transkripzioa

- Izena ta abizena ta noiz jaio ziñen esaten badiazu...
- Bai. Izena Karmelo ta abizena Alberdi Arizmendi.
- Arizmendi.
- Alberdi Arizmendi.
- Ta noiz jaio ziñen?
- Hamentxe. Hamentxe. Esan detana, konbentu horren onduen zan etxe bat, etxe txiki bat zan, ta haintxe jaixota nao ni.
- Hemen, Altzibarren.
- Bai.
- Ta ze urtetan?
- 1926. 26. Febrerun hamalauen.
- Ta ordun beti kalen bizi izandu zea?
- Bai, hamentxe. Hamentxe.
- Guasok kaletarrak zeuzkezun?
- Bai, kaletarrak zien; aitte Carlos ta ama Juana.
- Eta umetan eskolaa nora jun ziñen?
- Ni txiki-txikitten... Mixerikordixe esaten zitzeke ordun, Karidadeko mojak zeukeben eskolia. Eta haixek itten zebe nola mutil ala neska hartzen zittuen. Baiñe gero mutillek, behin lehenengo komunixue -jaunartzie-eitten zanetiken, haixek erten itten zebe eta gelditzen zin handiken aurrera neskakin bakarriken. Oseake, lehenengo urte bat edo bi edo in nittuen han in nittun. Gero komunixue in nuenien, ordun izen zan, klaro, epoka txarra belaxe etorri zan gerrikin ta zeakin, ta hamen Floreagako eskolak -eztakit aittute zauren- ta hori, haure, ein berrixe zan ordun, jaso berrixe, ta hara etorri zien lehenengo-lehenengo "Doctrina Cristiana"-ko hermanuek, La Sallekuek. Eta gero egon zin haixek 37 arte edo eztaikit... ez, 36xen eo holakon baten eo alde in zebe haixek. Eta haixek alde in eta gero, gerra-denporie nola zeuen, orduen frentie Eibarren zeuen gerrako frentie, eta kolegixo hori ein zebe "Hospital de sangre" ipini zebe. Oseake, hango herittuk eta zer danak horra etortzen zien.
- Floreagako eskolaa hoi?
- Floreagako eskola hortaa. Ta gu geunden eskola be. Geo herriko apaizek hasi zien eskolie ematen-ta. Aiuntamentun goiko zerin, pisuen, han ematen ziguen eskolia. Baiña orduen entierruk-eta goiz partetiken izeten zien -ez oin bezela illuntzien- eta, jakiña, entierron bat portunutzen zaniene, haixek entierroa jun ber izeten zebe apaizek ta gu gelditzen giñen eskola be. Gu kalien. Eta hola pasau zan denporia.

## 2. Manjonianoak, salestarrak eta merzedarioak Floreagan

- **Erref:** AZK-025/002
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:02:43. **Bukatu:** 00:07:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

### Laburpena:

<p>Gerra denboran, Floreagan zeuden rekete eta soldaduekin ikasten ibili ziren. Lehenbizi "Ave Mar&iacute;a"-koak, manjonianoak, etorri ziren Floreagara, baina gerra atera zenean batzuk fusilatu egin zituzten, beste asko frontera joan ziren... Haien ondoren, salestarrak egon ziren 1937tik 1947ra

bitartean. Salesiarrek bokazio handia sortu zuten herrian, baina gerraren eraginez gutxi geratu ziren eta haiek ere alde egin zuten. Salestarren ondoren merzedarioak egon ziren denbora batez, baina 1982an salestarrak bueltatu ziren berriz ere. Salesiarrek eta mixerikordiakoek (mojek) bat egin zuten eta eskola mixtoa jarri zen Floreagan.

### **Transkripzioa**

- Gero gerra-denporako zeak, reketik eta soldauek eta zea hoixek eta hamen portunatzen zianian, klaro, haixen artian bazeuren batzuek eo seminarixuen estudiatzen zeurenak eo haixek´e berdin han zebiltzen, ba, eta haixekin´e ibili giñen pixketien. Geo, gerrie akabau baiño lehenuo etorri zien 37n etorri zien Salesianuek hona. Ez! Geizki esan det, geizki esan det. Etorri zin lehenengotiken haixek alde in eta "Ave María"-kuek etorri zin, manjonianuek. Manjonianuk etorri zien. Eta haixek etorri eta...  
- Ze izaten zien o nungok zien hoiek?  
- Hoixek Floreagan. Esan detana...  
- Baiño eak nundarrak o zer zien?  
- Haixek beaixek behekuek zin, erdal... erdeldunek zien. Ta zien seglarrak zien, eta abade bat zeukeben apaiz, kapillau bezela. Haure zan naparra, don...  
- Eta apaizak ematen zizuen eskola?  
- Bai, apaizek eta bestik´e bai ematen zeuben. Geo sortu zan gerria, ta gerrie nola 18 de julio-n erten zuen, eitten zeuben bakazixo denporan batzuek jun etxetaa, beren etxetaa, bakazixuek pasatzea egun batzuek eta bestik gelditzen zin kolegixun. Haixek etortzen zienin gero, hamen geldiu zinak juten zeuben... trukie eitten zeuben. Eta hamendiken jun zien lehenengo txandako zer hoixek ta bete-betin gerrick harrapau zun zea hori eta han geldiu ber izen zun. Ta bat hantxe afusilau zeuben, Kordoban eo, eztakit nik, Granadan eo nun, hor behintzet, Andaluzikue zan haure. Ta han bertan afusilau zeuben haure. Eta bestik hamen geldiu zien, baiña hamen geldiu zienak frentie-ta hotsein zixoben, ta berriz´e geldiu giñen artzairik be gu, galdute bezela. Ta geo haixek jun ahala, ta haixen ondorenin etorri zien 37n etorri zien Salesianuek eskola hortaa, ta 37tiken 47a bittertien eon zin hamen. Ta gero, jakiña, gerra ondorenen-ta asko hil in zizkoen eta ezin kubriu plaza danak eta alde in zeuben hamendiken. Ordun sekuleko disgustue izen zan. Bai, ba, ordureko ya herri dana bolkaute zeukeben berekin eta zer haundixe izen zan ordun. Eta gero etorri zien, haixen ondorenen etorri zien Merzedarixuek Floregara.  
- Ta hoiek´e kanpotarrak?  
- Mercedarios Descalzos. Bai. Hoixek´e Leonen ta Toron ta hor zeuzkeben beren zeak. Eta gero, jakiña, hamen Salesiano zea hoixek sekuleko arrantzue in zeuben bokazixukin. Izen zien urtiek txandaik hartu ezin meza berrireko jaixetan ta aurretiken hartute. Udean eman nahi, ba, e? Ta udeko jaixek eta´re okupaute, ta oso zea izen zan. Eta geo etorri zien, esan detena, Merzedaxo hoixek etorri zien. Eta Merzedaxo hoixei galdetzen zitzebobenian: "Nola haixek hainbeste bokazixo ta zuek ez?" ta, "Ez"... Hamengo umie, itxuria danez haixek han zeuzkeben kolegixuek eta zeak, eta beak ikusten zeuben aldaketa haundixe pasako zitzakoela hamengo umie hara junde hango izitikin. Haixek ez zeuben bate bokazixoiken hamendiken etaa. Eta geo haixek alde in zeubenien, geldiu zan berriz´e eskola be, eta berriz´e denporia aurrera zijula, 82en, Aitte Santue Loiolaa etorri zan urtien, berriz atzea bueltau zin Salesianuk. Eta handiken ondiken´e hor daure. Handiken ondiken hor daure. Eta gero, esan detena, gu lehelengo ibili giñen Karidadeko... Mixerikordiko eskola hortan eta Salesianuek bat ein zeuben kolegixue eta ipini zeuben oin daon kolegixue da

“Colegio mixto”, nola neska ala mutil. Danan zea da.

- Eta orduarte beti banauta neskak eta mutillek?

- Bai, bai. Lehenengo aldiz hor ipini zan. Ta geo hor 16 urtea arte egoten dia zeak, eskolauek, ta gero ya bakoitze bere zeretaa, eo Profesionalea o hara o hona eo... hortikan zabaltzen dia.

### 3. Etxe ondoko fraideei esker erdara ikasi

- **Erref:** AZK-025/003
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:07:04. **Bukatu:** 00:08:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Euskara » Euskararen egoera

#### Laburpena:

<p>Eskolan liburu bakarra erabiltzen zuten ikasgai guztietarako. Azkoitiko umeez gaztelania gutxi zekiten, baina Carmelok, etxe ondoko komentura joaten ziren fraideei esker, erdara gehiago zekien.</p>

#### Transkripzioa

- Eta ze ikasten zenduen eskolan? Esan dezu diferentek pasau zittuzula, bai Floreagako eskolan, bai Mixerikordian mojetakoa... diferentek zien danak ala berdintsu ikasten zan danetan?

- Orduko eskolie ez zan oingue bezelakua. Ordun zan zer bat... Nola esaten zitzekon hari? Liburu bet. Enziklopedia! Eta harek eukitzen zituen gramatika, aritmetika, geometria, historia, historia de España, historia sagrada... danak eukitzen zittun harek, ta harekin konpontzen giñen. Oin aiñe liburu ta zerik ez. Ta orduko euskerie o zea´re... Geo, pasatzen zana zan hamengo umiek erderaz oso´re oso gitxi zekixeben. Ni bestiek baiño azkarro nitzelako ez, baiña hamen, esan detena, konbentun ondun nola geunden, horra etortzen zin praillikin-eta, badakizu, pittinke bada´re pixket gehixo saltaute neuen. Baiñe hamendiken Salesianuek-eta etorri zienien, lehenengo urte haixek fatalak izen zien. Klaro, Salesianuk beaixek euskerie ez zekixeben, umiek erderaz ez zekixeben... eta entendiuerazteko ta zerin. Baiña halaz ta guzti´re dana bolkau zan herrixe haixekin. Bai. Oso. Ene! Badakit juteakuen...

- [Haiek] onak zien, ordun...

- Bai, bai, bai, bai. Ene! Haixek... hara, in zittuen marabillak in zittuen hamen.

### 4. Floreagako patioan Espainiako mapa

- **Erref:** AZK-025/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:37. **Bukatu:** 00:10:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

**Laburpena:**

Floreagako patioan Espainiako mapa bat egin zuten erliebe eta guzti Manjonianoen garaian. Irakasle batek nola markatu zuen mapa klarionarekin eta nola egin zuten azaltzen du. Izarraiztik astoekin eramandako harriekin egin zituzten mendiak. Gero salestarrak etorri ziren. Salestarrek beraien egiten zituzten umeentzako jostailu edo entretenigarriak.

**Transkripzioa**

- Eta gero, esaten detena, oin ez dakit Floreagan behiñ´e izenda zauren... Patixuen, patixo bat baiño gehixo dauzke, baiñe patixo baten dao lurrien oso ederra dao Españiko mapia alto reliebikin ta zeakin. Eta ein zanian, haure ein zebeñ zean denporan, "Ave Mariakun" denporan ein zan. Ta oin...  
- Zer zan hori?  
- E?  
- "Ave Mariakoak"?  
- Manjonianos edo hoixen denporan ein zan hori. Ta akordatzen naiz nola maixu batek, don Josek, garbiu patixua ta klarionakin mapie markau zuen nola zan. Eta gero, bertako seme batek trongue ebaitzen dan bezelaxe, aixkurikin ebai zuen itsasuk etaatzeko. Ta zeak´e bai, esto... han dauren mendi-tontor haixek-eta Izarraiztiken ekarrittekuek die. Eskolan haundiñek, urtitan aurrera zijuztenak, astuk hartute jun zin harri hoixek ekartzea ta haixekin in zan mendixen zea. Ta mendi azpittiken dauke ure ertetzeko zea. Oseake, oin hustute egongo da, baiñe, orduen, ein zan zea hartan, oso zan politta. Gero itsasue o zea hartan arrai gorrixek ipini zittuen. Oseake, zan umintzat entretenimentu ikeragarrixen zan haure. Bai. Ta gero etorri zien, esan detena, Salesianuek. Ta Salesianuek gero jun ta oin dauren hauek dia 82en etorritta daurenak. Esaten detena, orduen haixek beaixek´e enpeiño haudixe hartu zebeñ eta beak -jakiñe, oin bezelako adelantuik eta zerik ez zeuen, eta- beak eitten zittuben umik entretenitzeko zeak... konparazixo batea, zankuek eta zeak beak itten zittuen. Ein ta "Carrera de zancos" ta ipintzen zittuen. Ene! Ze...!

**5. 63 antzerki obra**

- **Erref:** AZK-025/005
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:10:27. **Bukatu:** 00:12:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Antzerkia egiten zen eta lagun bati antzerkien izenburuak eskatzen zizkion eta 63 obra egin ziren. Antzerkiak asko laguntzen zien gaztelania ikasten. Lanetik atera eta gaueko 10etan joaten ziren. Salesianoetan ikasitako gizon bat zuten erakusle eta saloi batean antzezten zuten.

**6. Eleizara joanez gero, antzerkirako txartela**

- **Erref:** AZK-025/006
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:12:12. **Bukatu:** 00:13:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Aisia » Kultura » Zinema

**Laburpena:**

Igande goizean 8etarako meza eta komunioa izaten zuten haurrek, eguerdian meza nagusia eta gero beste elizkizun bat izaten ziren. Elizkizunetara joaten zirenek baleak lortzen zituzten arratsaldeko antzerkia edo zinea ikusteko.

**7. Mancisidor-enean mekanikari**

- **Erref:** AZK-025/007
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:13:06. **Bukatu:** 00:16:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Zinema
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

**Laburpena:**

Azkoitian Olinpia zinea zegoen eta garestia zelako ez ziren askotan joaten. 16 urterekin hasi zen lanean mekanikari lanetan Mancisidor Larra y C<sup>o</sup> antegian. Hasieran pintxe lanetan eta gero ajustadore gisa aritu zen. Gosete garaia zen eta jateko adina ere ez zuen irabazten.

**8. Azkoitira tropak sartu zirenekoa**

- **Erref:** AZK-025/008
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:16:19. **Bukatu:** 00:19:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Gose handia pasa zuten gerra garaian. Irailaren 20an tropak nola sartu ziren gogoratzen du, gaur balitz bezala. Anekdota bat aipatzen du. Etxetik gertu sagasti batera sagarrak jasotzera joan eta bonbak nola bota zituzten aipatzen du. Gasolindegira botatzen ere ahalegindu ziren. Gerrak bi hilabete iraun zuen Azkoitian. Tropak sartzen zirenean frontoia kuartel modura erabiltzen zuten.

**9. Floreagako eskola ospitale bihurtu zuten gerratean**

- **Erref:** AZK-025/009
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:19:28. **Bukatu:** 00:20:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

**Laburpena:**

<p>Azkoititik tropak Elgoibarrera joan ziren, eta handik Eibarrera. Bitarte horretan, gerra geldirik egon zen hiru hilabetez eta Floreagako eskola ospitale modura jarri zuten. Ospitaleko kapilaua Carmeloren irakaslea zen. Carmelo laguntzen aritzen zen akolito gisa.</p>

**10. Aita hil eta akolito hasi zen**

- **Erref:** AZK-025/010
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:20:23. **Bukatu:** 00:22:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena:**

<p>Bederatzi urte zituela, aita hil zitzaion, bi urtez gaixo egon ondoren. Arreba bederatzi urte zaharragoa zen. Aita hil zenean hasi zen akolito lanetan. Anekdotak bat kontatzen du. Egunero meza eta funtzioetan laguntzen zuen. Kapila bota zenean, Urrategira hasi zen igandero, akolito lanetan laguntzera.</p>

**11. Umetatik eliza munduari lotua**

- **Erref:** AZK-025/011
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:22:13. **Bukatu:** 00:23:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

**Laburpena:**

Urrategiko elizara laguntzera oinez joaten zen. Bi meza izaten ziren, 9etan eta 11etan. Umetatik hasi zen eliza munduan eta ez zuen hortik dirurik irabazten, borondatezkoa izaten zen.

**12. Ezkon-bidaian Fatimara eta Lisboara**

- **Erref:** AZK-025/012
- **Iraupena:** 0:03:51. **Hasi:** 00:23:25. **Bukatu:** 00:27:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

**Laburpena:**

<p>49 urte egin zituen lantegian. Koinatua eta bera batera ezkondu ziren eta bidaian nora joan ziren azaltzen du. Ezkon-bidaiara joateko lantegian baimena eskatu behar izan zueneko eta jubilatutako aurreko lan urteak aipatzen ditu.</p>

### 13. Alpargatagintza nagusi Azkoitian

- **Erref:** AZK-025/013
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:27:16. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

#### Laburpena:

Azkoitiko orduko lantegiak aipatzen ditu. Azkoitia alpargataren herria zen. Karmelok ere josi ohi zituen. Jositakoak entregatu egin behar izaten zituzten eta dirua jasotzen zuten trukean.

### 14. Umetatik koadro eta figurak margotzen

- **Erref:** AZK-025/014
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:29:20. **Bukatu:** 00:31:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

#### Laburpena:

Umetatik margotzea atsegin izan du, bere kasa aritzen zen etxerako koadro eta figurak egiten. Salesianoetako zuzendariak Carmelori eta beste lagun bati deitzen zien eskola orduetatik kanpo dekorazioan aritzeko.

### 15. Jaunartzea marinel jantzita

- **Erref:** AZK-025/016
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:31:53. **Bukatu:** 00:32:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Sakramentuak

#### Laburpena:

<p>Jaunartzeak Azkoitian egin zituen. Marinel jantzita joan zen eta zinta bat eramaten zuten.</p>

### 16. Aizkorrin gertatua

- **Erref:** AZK-025/018
- **Iraupena:** 0:05:49. **Hasi:** 00:32:55. **Bukatu:** 00:38:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Mendizaletasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

**Laburpena:**

Aizkorri mendira joan zireneko pasadizo bat kontatzen du.

**17. Aste Santuko prozesioa**

- **Erref:** AZK-025/020
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:39:12. **Bukatu:** 00:40:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

**Laburpena:**

<p>Aste Santuko prozesioa galduta egon zen, baina lagun talde batek berreskuratu zuen. Ostegun Santu egunean Jesus gurutziltzatu eta ostiralean jaitsi eta prozesioa egiten zen.</p>

**18. Jauna hartzera, baraurik**

- **Erref:** AZK-025/021
- **Iraupena:** 0:04:42. **Hasi:** 00:40:28. **Bukatu:** 00:45:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak

**Laburpena:**

Igande goizean, mezara joaten ziren; konfesatzea nahitaezkoa izaten zen. Luistarren kongregazioan egon zen. Elizara baraurik joan behar izaten zuten jauna hartzera. Behin, baraua hautsi zuen, eta orduan gertatutako pasadizoa kontatzen du.

**19. Azkoitiko eliza, komentu eta ermitak**

- **Erref:** AZK-025/022
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:45:10. **Bukatu:** 00:47:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eraikuntza erlijiosoak

**Laburpena:**

<p>Azkoitiko eliza, komentu eta ermitak izendatzen ditu. Azkoitiko lehenengo eliza San Martingoa izan zen. Errezil eta inguruetatik zaldiz joaten zen jendea mezara.</p>

**20. Urrategiko elizarako egindako lanak**

- **Erref:** AZK-025/023
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:47:25. **Bukatu:** 00:49:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kultura » Beste adierazbide batzuk

**Laburpena:**

Urrategiko elizako aldarean Carmelok eskuz landutako aldarea eta mahaia daude, besteak beste.

**21. Gaurko euskara; 'Basarri'ren aipamena**

- **Erref:** AZK-025/027
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:50:52. **Bukatu:** 00:54:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

**Laburpena:**

<p>Irakasle erdaldunak izan zituen eta euskaraz egitea debekatua zuten. Gaurko euskara zaila egiten zaio irakurtzeko eta ulertzeko. Euskararen aipamena. <em>Basarri</em> bertsolaria.</p>

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-06-04*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com